

23
BAYONAKO JAUN APHEZPICUAREN

LETRA

APHEZEN BIZITZEKOAZ

(DENIER DU CULTE)



TOURS

MAISON ALFRED MAME ET FILS

IMPRIMERIE

—
1907

ATV

30551



BAYONAKO JAUN APHEZPICUAREN

LETRA

APHEZEN BIZITZEKOAZ

[DENIER DU CULTE]



M-68886
F-72817

AV
30551

BAYONAKO JAUN APHEZPICUAREN

LETRA

APHEZEN BIZITZEKOAZ

(DENIER DU CULTE)




TOURS

MAISON ALFRED MAME ET FILS

IMPRIMEURS

—
1907



BAYONAKO JAUN APHEZPICUAREN

LETRA

APHEZEN BIZITZEKOAZ

(DENIER DU CULTE)



FRANÇOIS-XAVIER-MARIE-JULES GIEURE, Jainkoaren miserikordiaz eta Alkhi Sainduaren graziaz Bayonako Aphezpikua

ANEIA GUZIZ MAITEAK,

Dituela zombait hilabete eske heldu gintzauzuen, esku eman zindezaten galdez zuen aphezer, khendu baiteiete hartze zuten bizitzekoa. Galdatzen gindauzuen bertze batzuek eremanaren ordaina eman zindezeieten, anhartean bezala egin ahal dezaten gatik aitzina zuen onetan deramaten lana.

Aditu duzue gure galdea, eta ez dezaukuzuegu aski erakuts gure ezagutza.

Zorigaitzez, egin daukuten kaltea ez da behin bethikotz sendatzen direnetarik. Hemendik goiti urthe oroz beharko duzue eman zuenetik. Horra zertako uste ukhan dugun behar gindueta alde hortarat zerbeit egin, zuzenik eta iraupen lukenik, aphezen onetan; hek ere egin ahal dezaten gatik zuen artean beren lana bethi eta aitzina.

Horra zertaz nahi gitzauzuen mintzatu Letra huntan. Luze joanen da gure solasa; zeren eta behin bethikotz hartu behar duzuen urhats batez baita hemen aiphu, eta nahi baigindauzkiezue argitu gogoak eta hunki bihotzak, gauza den bezala ezagut araziz.

Hortako erranen dautzuegu zer den zuentzat apheza, gero

zer dakozen zor ordainez eta nola nahi dugun ordain hori eman dezakozuen.

Naki ginduke Letra hau hel dadin gure Diosesako fededunez gutiz gehienen eskuetara, argi ditzan gatik guziak.

ZER DEN APHEZA.

Othe dakizue ongi, Aneia Guziz Maiteak, zer den apheza? Othe dakizue zer den erretor bat? Nahi naukezue erakustsi lehenik zoin den handia bere izaitez; erraiteko gero zer egiten duen zuentzat eta zer duen hartze zuen ganik.

Osteka lur huntan dabiltzan gizonen artean badira zombait Jainkoak bertzeetarik berezi dituenak, hala nahi zuelakotz.

Hautuzko gizon horiek Jainkoak ezartzen ditu bere bihotzetik hurbilago; gaindika emaiten deiezki bere dohainik aberatsenak; gizonaz goragoko zerbeit egiten ditu, eta emaiten deie eskuetara bere ahal mugarik gabea. Gizon hek dira aphezak.

Jainkoaren deia.

Ohi haur gaicho bat zen izenik ez eta ahal handirikez zuten burhaso batzuen umea. Bi mila urthe huntan holakoen artean hautatzen ditu Elizak bere aphezak, ohi Jesu Khristok arraintzale batzuen artean hautatu zituen bezala bere Apostoluak.

Lehen aldikotz, egun batez, (ez othe zen lehen komunio-neko eguna?) edo goizago ama giristino batek oraino besuetan zaukalarik, aditzen du bere baithan nundik heldu den ez dakielako dei bat: «Haugi, enea hiz, nik hautatu hut.» Dei horrek izitzen du behin haur gaichoa. Bainan, aditu arau, eztiago iduritzen zako, azkarrago ere bai: «Bahaki zer chede handirat deitzen hutan, bahaki eskaintzen deiatan dohaina?» Horra nolache hasi zen Jainkoa arima maite hartaz jabetzen, hau beldurrez eta aditu ezin sinhetsiz gibelerat egitera zagoe-larik.

Haurra handitzearekin, ezagutza heldu zakon arauera, dei

hori manu zorrotz bat bezala mintzo zako: « Haugi, enetzat nahi diat hire gaztetasuna, enetzat hire geroko ametsak, enetzat hiza guzia, igurikitzen ditukanak, enetzat hire bizia. »

— Ah, Jauna, hitzeman bazinitzauskit ohoreak, aberastasuna, atseginak! Bainan badakit jadanik zuk hola hautatzen dituzunak gaizki derabiltzatela gizonak, edo hek egin deieten ongiaren ordainez, ez deus batzu bezala bazterrerat uzten dituztela. »

Eta badoa aitzina Jainkoaren eta arimaren arteko solasa.

— « Bai, egia duk; hiretzat erran diat: igortzen zituztet bildots batzu otsoen arterat bezala. Dohatsuak ene gatik gaizkia jasaiten dutenak! Haugi; enea hiz.

— « Bainan, Jauna, ezin ditzazket utz aita, ama, abaideak, adiskideak, mundua, lur huntan maite ditudan guziak!

— « Nork ere maite baitu bere aita, bere ama, ni baino gehiago, hura ez da on enetzat. Enetzat oro uzten ez dituen ez da ene gizona. Bahaki nolakoa den Jainkoaren dohaina! »

Manuak ichiltzen dira eta huna nun othoizka mintzo den Jainkoa: « Haugi: enetzat hautatuz ez othe deiat erakusten zombat hutan maite bertzeak baino gehiago. Haugi bada: Jondoni Joane Apostoluak bezala ene bihotzaren gainean emanen duk burua, eta ezagutuko duk zoin hutan maite! » Eta bihotz hura ordutik zabaltzen bezala dako haur maiteari, diolarik — « Gizonen erospenean egin ditiat bi zathi; bata enea, bertzea hira. »

Arimen salbatzeko gizon egin izan nuk, anhitz jasan diat, ichuri nere odola, khurutzean hil nuk. Horrela hetsi diat ifernua eta ideki zerua. Lurrean gizoner utzi deiezkiat salbatzeko sakramenduak eta grazia. Horra lan hortan nik egin dutana.

« Orai nor jarraikiko da arimen salbatzeari? nork joanen du aitzina nik hasi lana, nork eratchikiko ditu nik ichuri odolaren ondorioak, nork emanen sakramenduak eta ene grazia? Lurrerat ekharri diat egia: nork irakatsiko du hura? Zabaldut diat zerua; nork sar araziko ditu han arimak? Ni nizan bezalako bertze batzuen beharretan nuk arimen salbatzeko. Eta hi hut hautatu ene lanaren burura heltzeko. Ikhus ezak zer

gosta zauzkidan arimak; heientzat higatu diat nere bizia, heien amodioz hil nuk. Alferretan bada heientzat Jainkotarik gizonera jautsi nuk! alferretan heientzat egin dikeiat nigar, hambat jasan eta bizia eman; zer irabazi duket ichuririk odola, baldin gizonak galduz badoatzi aitzinean bezala? Haugi bada. Ez othe hut salbatu hi ere? Bahaki Jainkoaren dohaina! »

Garhaitua azkenekotz, holako amodioari ezin gehiago ihar-dokiz, ahalgetua ere hoin luzaz Jainkoaren deiari bihurturik, arima gaichoa, amodioak harturik, badoa Jainkoaren eskuetara, diolarik: « Huna nun nizan, Jauna, deitzen nuzunaz geroz. Ez eman manurik, ez egin othoitzik: nor niz ni? eta nor zira zu? Ez nuen merezi hauta nindezazun. Nola behinere emanen dauzut ordainik? »

Dohatsuak Jainkoak hola hautatu dituen haurrak; dohatsuak Jainkoaren deia aditu duten haurren amak.

Semenarioa.

Eliza berehala jabetzen da haur hartaz; mundutik berez-ten du eta barne batean ezartzen, nun ichiltasunean, othoitz-zean eta lanean moldatuko baitu Jainkoak deitzen duen chede handira. Horra bada haurra Semenarioan sarthua: han Jau-naren deia bethi gogoan daukala, eremanen ditu bere egunak bakean hogoita lau edo bortz urtheak artean.

Lan luzea, halakoa baita chedea. Haurra gizontzen ari da; ardura begien aitzinean emaiten dakote zoin chede handiari buruz doan; bai eta ere zer galdatzen duen haren ganik. Urthe oroz igortzen dute bere etcherat, ikhus dezan gatik hurbilik zer den mundua, eta azkenekotz egiten duenaren jakinera hauta dadin.

Egun bat heldu da luzaz igurikia; ez baitzuen iduri behinere jinen zela. Egun hartan, buruko ileak moztera utziz, hartu zuen geroztik osoki Jainkoarena zelako seinalea. Ohi Jondoni Petriri bezala egun hartan Jesusek galdatu dako aphez gei gazteari: « Maite nuka? » Eta hunek, bihotzak gaindi egiten dakola: « Badakizu, Jauna. maite zitudala! » — « Maite nuka zinez? » — « Jauna, zinekin erraiten dauzut,

maite zitut! — « Ez diat oraino hire zinen beharrik, aski diat hire hitza, baitakit bihotzetik heldu dela. Beude zinak geroko. »

Eta aphez-gei gazteak bere aphezpikuaren oinetan belhau-nika, erraiten dako Jainkoari : « Jauna zurea niz bethikotz; zu zira ene ontasun guzia. *Dominus pars hereditatis meæ.* » Bere bizian ardura jinen zazko hitz horiek ahora, bihotzak amodioz jauzi eginen baitako aldi oroz, lehen aldian bezala. Bertze egun bat jinen da gero, noiz urtheak iraganik eta biziaren azken mugetara heldurik, eternitateari buruz, azken hatsetan erranen baititu, orhoituz Jainkoari hambat aldiz hitzemanetz, eta haren ganik ordainez igurikitzen dituenetz. *Pars mea Deus in æternum.* Jainkoa da ene ongia bethikotz.

Badoa aphez-geia aitzina bere bidean; aitzinean baino jarraikiago bere eginbideer; ezagun du Jainkoari hurbilago dagola. Haren bizi guzia bahi ezarri behar duten urhatsetarat hurbiltzen ari da. Obiko haurra gizon bat da. Erran dugunetik bi urtheren buruan, huna ethorria behinere hautsi beharko ez dituen hitzen emaiteko eguna. Churiz beztu, barnez garbi den bezala, han dago aphezpikuaren aitzinean chutik, erakusteko oraino bere buruaren jabe dela. Oren handia hura. Fededunen aitzinean eta goraki Aphezpikuak erraiten dako zer urhats ondorio handitakoaren egitera doan : « Eginbide handien hartzera zoazi zure gain; egin dezakezu oraino nahi duzuna; hemendik berehala ez zira zeure jabe izanen : egizkitzu gogoe-tak. Beharko duzu garbi egon bethi, eta Jainkoaren lana egin azken hatseradino. Gibelerat egin dezakezu oraino. Bainan azkar bazaude zure chedean, zato, estekan izanen zira bethikotz. » Aphez-geiak dakielarik ongi zer ari den, Jainkoaren, Andredena Mariaren, aingeru eta zeruko Saindu guzien aitzinean, egiten du bizi guzia berekin deraman urhats hori. Geroztik Jainkoarena da bethikotz. Eman du bere burua, osoki, deus begiratu gabe beretzat, eman dako Jainkoari bertzeer eman zezaken bihotz bat. Bihotz hura gaineratiko guzietarik ezarri du husturik, Jainkoak beretzat ukhan dezan guzia. Ez da gehiago bere jabe; estekatua da Jainkoari. Geroztik haren indar guziak joanen dira Jainkoaren nahiaren egitera, arinuen

salbatzera, Aphezpikuak dionaren arabera : *Deus cui servire perpetuo famulari.*

Azkenekotz zerbeit egin ahal izan du Jainkoarentzat, saririk iguriki gabe. Munduari iduri zako, oro emanik Jainkoari, ez duela aphez-geiak deusik irabazi : egun dorphea dauka harentzat egun hori. Bainan bera ohartzen da Jainkoari emanak badauela bethi here saria, eta deitzen du egun hori bozkariozko, atseginezko egun bat, gozo izanen baitzako bethi haren orhoitzapena.

Huna orai azken urhatsa : aphezetasuna. Burura doa Jainkoak ohi abiatu lana. Lurreko erregeentzat, zeruko aingeruentzat, ez eta Maria bere amarentzat egin ez duenaren egitera doa aphez-gei gazte horrentzat.

Huna nun dagon aphezpikuaren aitzinean, bi belhaunez lurrean. Fededunen bilkhua ichilik dago, begi guziak aide bererat itzuliak. Aphezpikuak bere bi eskuak badauzka luzaz haren buruaren gainean : gero bi eskuetan emaiten dako olio saindua, eta mirakulu handienetarik bat egina da. Nola meza sainduan aphezaren hitzek jauts arazten baitute Jesu Kristo ogiaren eta arnoaren itchuren azpira, orobat aphezpikuak emanez eskuak haren buruaren gainean eta haren eskuen gainera ichuriz olio saindua, egin du aphez gei gazte hortarik bertze Jesu Kristo bat. Aphez da orai, aphez bethikotz.

Chutitu denean badoa eskuak uztarturik, begiak lurrerat, aphez soinekoetan, buru guziak aphaltzen baitira haren aitzinean bai lurrean, bai zeruan. Ez da ohiko gizona, bainan bai Khristo bat. Aphez gazte horrek aditzen ditu bere baithan zerutikako hitz batzu : « Har ezak uztarri hau; ezen ene uztarria gozoa duk eta arina. » Behinere baino amultsukiago mintzo zeie Jainkoa bere aphezer : « Ez nuzue zuek hautatu ni; nik hautatu zituztet zuek Hemendik goiti ez zituztet deithuko ene sehiak, bainan bai adiskideak; ez dut deus gorderik zuentzat; zuer behatzen zauzuen niri behatzen zant. »

Zoin den handia apheza.

Ohiko haur gaichoa bada, bereaz hain ez deusa, horra nun den aphez : nork erran zoin den haren handitasuna? Ager baladi begietara izaitz den bezalako, dio saindu batek, gauzarik ederrenak itzal litezke haren aldean, lurreko erregeak ahuspe loazke haren aitzinean. Hari beha bozkarioz gaindi daude zeruko sainduak eta purgatorioetako arimek Khristo berri horri laguntza eske dira. Apheza Jainkoaren arartekoa da, haren laguna. Mintzatuko zeie gizoner eta erranen deiezki Jainkoaren hitzak. Apheza jarriko da kofesa alxhian; dio : barkhatzen dauzkiat hire bekhatuak; eta barkhatuak zazko; ezen Jesu Khristo da mintzatu haren ahoz. Aldarean erraiten ditu sakramenduko hitzak; Jesu Khristo da haren ahoz mintzatu eta huna nun haren manura jautsi den aldarearen gainera. Apheza Jesusen adiskide mina da, haren ongi guzien begiralea : aphezak dauzka haren graziak, haren odola, haren Ebanjelioa. Deithuko dute Jesu Khristoren lekhukoa lur huntan, eta izaitz haren ahal guziak eskuetan dituzke, hura bera baliz bezala — Erlijionean jakintsun direnek eta sainduak ez dakite aski zer erran aphezaren handitasunaz. San Ephremek dio aphezetasuna dela bethiereko mirakulu bat; gure gogoa eta gure solasak gainditzten dituen handitasun bat. San Clement, san Ambrosio, san Agustin heldu zauzku aphezari eratchikitzen dazkotela Jainkoari berari baizik ez doazkon ahalak eta solasak. Diote apheza dela bertze Jainko bat lurrean. « Hatzeman banitza aphez bat eta aingeru bat doatzila elgarrekin, dio san Frantses Assisekoak, belhaunaz jo nezake lurra lehenik aphezari buruz, gero aingeruaren aitzinean. »

Innocent hirugarren Aita sainduak, Andredena Maria baino gorago dio dela apheza : ezen hain gora alchatu duen arren Maria, ez dazko hari eman Jainkoak bainan bai aphezari zeruko gakhok. San Bernardin Sienakoak, zelarik Andredena Mariari hain atchikia, erraiten ohi zakon : « Ez zazkidala samur Birjina guzizkoa, ez zitut deusetan aphaltu nahi; bainan Jainkoak zu baino gorago ezarri du apheza! » Horra zerk argitzen dauz-

kun Jainkoak aphezaz egin duen hautua, adi arazi dazkon deiak : nola duen emeki emeki beretu, moldatu eta azkenekotz bere aldean ezarri. Jainkoak haur hartan ikhusten zuen aitzinetik bera bezalako bertze bat, berak hasi lanaren aitzina eremailea. Eta chede hortan du hautatu bertze guzien artetik. Zer ongiak, zer ohorea! Nola bada bihurtuko ahal dako aphezak Jainkoari haren ganik ukhanen ordaina? Hortako aski dituzke beretzat hartzea eta egiazki obratzea Jondoni Pauloren hitz hauk : « Hemendik goiti enetzat bizitzea diteke bertze Jesu Khristo bat bezala ibiltzea orotan. Bizian ala hilean oro Jaunarena niz : harek bere buruaz egin duen bezala, emanen niz nizan guzia arimen onetan. »

APHEZAREN EGINBIDEAK

Eta izaitez baditu aphezak bere eginbideak. Jesu Khristoren lekhuko eta haren ondoko lurrean, beharko du gogoetaz, solasez eta egintzaz izan haren iduriko. Harek gizonen salbatzekotan hasi lana beharko du aitzina ereman. Jesu Khristok hortako eman du osoki bere burua heriotzeradino : laguntza ekharri deie gizonen min guzier, ala arimakoer ala gorphutze-koer. Aphezak orobat eman beharko du bere burua, eta ber gauzak egin beharko ditu.

Bere buruaren emaile apheza.

Bertze Khristo bat denaz geroz, aphezaren bizia eta urhatsak Jesu Khristoren biziaren eta urhatsen araberrako izanen dira. Agertuko da beraz gizonen aitzinera bere gorphutzean dakharzkila Jesu Khristoren heriotzearen hatzak. Emanen du osoki bere burua, Jesu Khristok Kalbarioan berea eman duen bezala. Harek bezala bere gain hartuko ditu bertzeen bekhatuak, bereziki eskura emanak izan zazkon arimenak. Egun oroz chede hortan eskaintzen du bere burua, beren bekhatuez

arrikirik ez dutenen onetan. Zer ere jasaiten baitu minik eta nahigaberik, hambatez arintzen du haren haurrek Jainkoari dakoten zorra, bere minak Jesusek jasan dituen minak eratchikitzen dituelarik. Hala eginez baketzen ditu bekhatorosak Jainkoarekin.

Ez da aski gizonen salbatzeko Jesu-Khristok haimbertze jasanik, behar da harek jasanen gainera jin dituen aphezak jasaiten dituztenak. Bertzeen onetan emanen du beraz aphezak bere burua; deusek ez baitako ohore gehiago egiten, neholak ere ez baititu hobeki arimak beretzen, Jainkoari emaitako.

Horra zerk duen apheza Jesu-Khristoren iduriko egiten, horra zerk duen gora alchatzen, ez baita behinere handiago nola dagonean Jesu-Khristorekin Kalbarioan. Biek batean eta elgarrekin dituzte arimak salbatzen. Apheza gaizki erabiliz mendeetan barua, munduak ez du bertzerik egiten baizik Juduek eta heien eskuko gizonak Kalbarioan egin zutena. Zombatak ez ote dira oren huntan aphezak, Apostoluarekin erran baitezakete : « Minak jin zauzku gainera izari guziak gaindituz, jasan gindezaken baino gehiago. » Bainan berriz ere horra nundik den apheza Jesu-Khristoren iduriko, beraz guziz handi. Horra nolako nahi duten izan dadin apheza bai bere chedeak, bai Jainkoak; eta holako ere behar du izan arimen salbatzeko. Jasaiten dituen minen artean nola dabilan ikhusten dutenek diote : aphez hori egiazki bertze Jesu-Khristo bat da : Jesu-Khristo bera da.

Arimako minen sendazale.

Jesu-Khristorekin batean emanen bere burua, barnez eta egintzaz Jesu-Khristoren iduriko bilhakatzen da apheza. Hura bezala ere ari da gizonen minen sendatzera eta lehenik arimakoan.

Zatozte ene ganat, dio Nausiak ohi bezala, zatozte gaizki zizten guziak eta minak ezin jasanean, nik laguntza emanen dautzuet. Bere lankhian sarthu den bezain laster, oraino ez-agutzen ez zuen su batek hartzen du barnelik. Semenarioan

zelarik amets ederrak egiten zituen bere gambara ttipian. Iduri zitzakon bazoala arima gaichoan ondotik hatsa galdurik : hartzen zazkon debruari aztaparretarik eta Jesu-Khristoren oinetara ekhartzen zituen. Orduko ametsa oraiko egia da. Horra nun den arimer buruz ; bere gain ditu : Jainkoak eman dazko eskura, zain ditzan gatik ; bihotzak gaindi egiten dako heientzat amodioz.

Jondoni Paulorekin batean dio : « Bai, gogo onez ene aneien salbatzeko emanen dut nere burua : ene gutizia oroz gainekoa da heier Ebanjelioarekin batean ene zainetako odolaren eta biziaren beraren emaita. » Horra zertako beretuko dituen arimak eta sendatuko. Bekhatorosez orhoitzearekin ez dezake jasan bere bihotz mina, eta hainbertze arima oren oroz ifernurat doatzila ikhustearekin. Zoin urrikari ditudan, dio, dohakabe horiek *Misereor super turbam*.

Hor daude bekhatorosak ene beha, heien bizia edo heriotzea ene eskuetan da : ez baditut salbatzen, galdua niteke nihau : ezen Jainko jujearen aitzinean bihurtuko zauzkit egun batez, eta heien salbatzeko hautatu ninduenak ez nu kondenatuko ahal baizik. » Eta bekhatorosentzat othoitzean dago : heientzat on izanez, biltzen ditu bere ganat ; erakusten deie zombat dituen urrikari eta zoin errechki sar ditezken bakean.

Chutik nekez daudener emaiten deie esku ; eta bertzeak idorki derabiltzatener emaiten deiezki begithartera Salbazailearen hitz zorrotz hauk : « Nor ere bekhaturik gabe baita, harek aurdiki dezeiela lehen harria! » Egin duen gaizkiaz ahalgez dagoenari erranen dako : « Nehork ez hu kondenatu, nik ere ez hut kondenatuko. » Madalena bezala urrikitan direner eskainiko deie barkhamendua. Bekhatuan lo daudenak ekharriko ditu aithorraren egitera eta berak gaizkitik atheraturik, bertzeer ongi egitera. Zerbeit burutarik dohakabe diren guziek hunkitzen dakote bihotza eta gogo onez erran lezake ez dela aphez onentzat, bainan bai bekhatuan direnentzat.

San Frantses Salekoarekin luna zer dion : « Zombeitek idorki derabiltzate bekhatorosak bekhatoros direlakoan, ez balira bezala hortako bereko bai urrikalgarriago, bai maithagarriago. Gaizki hatzemaiten dute besarka ditzadan fedea

ukhatu dutenak eta jende galduak; ahanzten ahal banu bezala ene arthaldeko ardiatarik direla, eta Jesu-Khristok bere odola eman deiener ez baneiezki bezala eman behar bederen nere nigarrak!

« Nehor madarika ez dezaken baxharra da apheza; harek du ere baxharrik bekhatorosaren ondotik ibiltzeko, haren maithatzeko eta haren beretzeko gutizia eta indarra. Badaki hori jendeak eta, badoa beldurrak gabe, aphezaren ganat : Bethidanik hola izan da, dio omen handitako aphez batek; beren aithorraren egitera heldu zauzku haurrak eta zaharrak, adin orotakoak; erraiten dauzkute ancia baten, adiskide baten beharriak aditu ez dituen gauzak. Ez baitu deusek hobeki erakusterrat emaiten Jainkoaren gizona dela apheza. » Deusek ere ez du hobeki erakusten zoin den ona apheza eta barkhatzera ekharria.

Bertze gauza batek ere estekatzen deie apheza arimer, baitaki zombat duten erlijionearen ongi ikhastearen beharra : irakasten deiezki beren eginbideak Jainkoari buruz, laguner buruz, eta azkenekotz beren eretzcan. Aphezak, edo zoin izan dadin, ikhusten ditu hura mintzo den alkhiaren oinetan dau dela ichilik handiak ala chumeak haren erraner bcha, eta Jainkoaren hitza bezala biltzen dituztela guziak.

Huna bi mila urthe hurbil Ebanjelioa bethi hola onhetsia dela : gizonik jakintsunenek aldiz ez baitute gorenaz bat edo bertze baizik hatzeman heien irakaspena onhesten duenik, eta anhitzetan berak ekharriak baitira azkenekotz aithortzera amets batzu baizik ez zirela hek egiatzat zauzkatena; eta joan direla ametsetan. Gizonetarik gutiz gehienek ez zuten aditu ere aiphatzen heien irakaspena ez eta heien izena.

Gorachago aiphu ginduen aphez omendunak zioen : « Nun da Europa guzian gizonak baitezpada jakin behar dituen gauzez irakaspen oso bat? Nihun ez da ezagun. Badira bizkitartean buru eta jakitate handiko gizonak, eta ezin eman dute, ez dut erranen mila urthe, bainan heien biziak bezain luzaz iraun duen irakaspen bat. »

Zoin da orok onhesten duten irakaspena, katichima ezin irakurtuz ari den haur tipiak eta liburutan higatu den jakint-

sunak, beharrak eta aberatsak, sehiak eta nausiak, erregeak eta haren azpikoetarik azkenak? Hura da aphezaren irakaspena eta ez bertzerik : zeren eta, dakielakotz nundik heldu den eta egia dela, orori bardin mintzo baita, behatzen zaskoner emaiten deielarik arimako bakea, gozoa, bozkarioa; zeren eta aphezaren hitzak, Jesu-Khristorenak bezala, baitauka argia eta indarra; arintzen eta sendatzen baititu arimako min guziak.

Gorphutzeko minen eztizale.

Jesu-Khristok ez zituen arimako minak baxharrik sendatzen, ez zituen baxharrik arimak maite, zabilanean bekhatosen ondolik, argitzen zituela osteak. Gorphutzeko minek hunkitzen zakoten bihotza eta ari zen heien eztitzera arintzera, sendatzen ere zituen, edo bederen Jainkoaren eskutik har arazten. Jesu-Khristo haren Nausiak bezala, aphezak bertzeek jasaiten dutenaren eretzean minbera duke bihotza : bere gain hartuko ditu harek ere bere haurren minak eta ahalaz arinduko bederen baditu.

Beha ezazue erretor hori : zuen arterat jin den ordutik, Aneia Guziz maiteak, zuen lurrean egin ditu erroak; zuek bezala mintzo da, zuek bezala bizi; zuek maite dituzuenak maite ditu, zuek dauden gauza guziek hunkitzen dute ala ongirat, ala gaizkirat. Zuen beha dago bere etxean, nun baxharrik baita. Ez du bertze familiarik nahi izan : zuek ziezte haren familia. Beldurrik gabe beraz nor bedera badoake haren ganat, hatzemanen du adituak beretzat begiratuko dituen adiskide bat, aita bat. Zabal ezakozu zure bihotza, errozu zer duzun eskas, zerk min egiten dauzun; ez zitezke alferretan mintzatu.

Bizkitartean munduak bere bestetan eta gaineratiko egitekoetan sartzan ikhuri nahi ez duen gizon hura atheratzen ohi da bere etchetik. Errana da salbazalea orotan ongia eginez bazilela. Orobat bere nausiaren idurira, orori ongi egile ager-

tuko da apheza. Holako daukate guziek, holako da ere izaitez. Badazkitza min guziak, eskasia guziak.

Badoa beharraren gana, emanen dako ahal duena beretik, eta joanen da ararteko, haren onetan, aberatsari mintzatzera. Gizonak hain zorrozki zoin bere irabaziari doazkon mende huntan, zombat ez liteke eskasia laguntzarik gabe lagokenik, baldin ez baliz apheza haren alde mintzo; baldin ez balitza bere solasez eta egintzez gauza dutenak ekhar ez dutenen laguntzera. Huna nun eritasuna sarthu den etche batean; beldurra sarthu da harekin : ama bat, aita bat, espos bat, eneia edo arreba bat jo du gaitzak. Nori daude oren latz hartan ororen bihotzat? Aphezari, Jainkoaren gizonari min guzien eztizaleari. Berria jakinik, iguriki ere gabe galda dezaten, horra nun den apheza nigarretan dauden dahakabe heien erdian. Harek ditu bakharrrik hiltzera doanari heriotzea onhets arasten dakoten hitzak; harek daki bertzeer bihotzaren altchatzen. Holakotan ez aro gaitzak, ez bide luzeak, ez eta gau beltzak ez dezakete gibela minetan direnen ganat joaitetik. Hor dago eriaren ohapuruan eta gorphutzetik atheratzera doan arimari mintzo zako heriotzeaz haಿಂದian igurikitzen duten gozoez. Othe da lan ederragorik nola baita arimako eta gorphutzeko minen eztitzera doana?

Zertako da apheza?

Baldin bada oraino galdatzen lukenik zertako den apheza, erran dezaukula harek zertako zen Jesu-Kristo, noiz eta ere baitzoan haur ttipiak benedikatzen zituela, bekhatorosak bide chuchenerak ekhartzen guziak; zoanean Kalbarioari goiti, azkenekotz emaiten zuenean khurutzean bere bizia! Ez othe zen arimez berriz jabetzen eta heien salbatzen ari? Eta zertako da apheza baizik Jesu-Kristok hasi lanaren burura heltzeko. Hunek ere bere gain hartzen ditu bertzeen hutsak, emaiten deie orori argia, behar dutener barkhamendua, ahal, bezain urrun hedatzen du Jesusen amodioa eta arima gai-choak biltzen ditu Jainkoaren ganat.

Emazu ez dela aphezik; doatzila guziak norapeit gure arte-
tik; orduan ikhusiko duzu zertako den apheza. Hura joanik
badoa ere Jainkoa: geroztik ez da nihun zuzenezko nausirik:
bakhotchak nahi du bere jabe izan bai familian, bai handik
kampo: gutizia tzar guziek gairi egiten dute, deusek ez
baititu beren mugetan begiratzen, makhurra nausitzen da
orotan. Lanetik bizi direnek, hemendik lekhora zeru bat bade-
lako sinhestea galdurik, nahi dute oraidanik gozatu gero
ukhanen ez duten zoriona; ez da gehiago gizonentzat elgar-
rekin bizitzerik. Paganoen heinera eta azkarrenen eskupera
erortzen gira guziak.

Erranen daukute zombeitek: Ez da apheza zuk diozun beza-
lako, badira beren egitekoer jarraitzen ez diren aphezak.

Egia baliz ere hori, izanik ere chunen edo milaren artean
behar ez den bezalako aphez bat, zer erran nahi luke horrek
bertzeer buruz? Bat makhur doalakotz erranen othe duzue
haren iduriko direla bertzeak, chuchen doatzilarik beren che-
deari buruz, direlarik gizon guzietarik hoberenak? Bere schia-
rentzat idor delakotz nausi bat, saltzale batek ebatsi baituke,
soldado batek ihes egin, juje batek saldu baitu bere burua,
erranen othe duzu idorrek direla nansi guziak, saltzale guziak
ohoinak, soldado guziak ihes egileak, juje guziak trufatzen
direla legeaz? Ez zindabilzke chuchenago aphez batzuen
hutsak ooren gain emanek; ez dela erlijionea egiazkoa,
erranez, delakotz aphez bat edo bertze fede gutikorik. Erlijio-
neak ez dauka bere indarra aphezen egintza on edo tzarretarik.
Nork ez daki bertze alde zoin trebe diren anhitzak gezurrez
aphezaren belzten? Badakigu ohiko mendeetarik hunat aphezik
hoberenek, Sainduek berek, anhitz jasan dutela etsai gezur-
tien aldetik.

Eta orai, Aneia guziz Maiteak, zer deiezuete zor aphezer, zuen arimen ongiegileer?

ZER DUGUN ZOR APHEZER

Maithatu behar dituzue eta goretsi. « Egizkitzue aphezen erranak, zion Jondoni Paulo Apostoluak, ezen zuen begirale daude eta zuen arimez on egin beharko dute Jainkoaren ait-zinean. Egizue errech eta gozo izan dakiten lan hori eta ez dorphe. » Badakizue horiek direla zuen eginbideak eta erran behar dugu bethetzen ere dituzuela. Gure ustez, Diosesa guti da Frantzian nun apheza hemen baino begi hobez ikhusia baita; nun haren baithan sinheste eta harentzat amodio gehiago baitu jendeak.

Bainan bada eginbide bat guziz oren huntan aipatu behar dautzueguna. Bethetzen zinduten jadanik; orai hertsikiago lotzen zauzue. Horra zertako hura baizik ez dautzuegun aipatuko aldi huntan: erran nahi dugu behar deiezuela bizitzekoa eman zuen aphezer.

Anhitez gozoago litzaukegu ez bagindu eskatu behar geure aphezen bizitzekoa. Duela mendea eta hamabortz bat urthe artean giristinoek ez zuten aphezer deusen emaiterik. Arima onek utzirik ahala, Elizak bere gain har zitazken bai elize-tako, bai aphezentzat behar ziren guziak. Erlijioneko gauzak urririk ziren ororentzat. Erreboluzioneak hartu zazkon Elizari zituen guziak. Bizkitartean mila zortzi ehun eta batean Aita Sainduak eta Frantziako Gobernamentuak egin zuten elgarren

artean lege bat; ekhartzen baitzuen hunek Elizari ebatsi ontasunen orde gobernamentuak emanen zeila aphezpikuer eta aphezer, beren heinaren arabera, bizitzeko behar zutena. Hola joan dira gauzak ehun urthez. Dituela bi urthe Frantziako gobernamentuak, zuzen guziak hautsiz, ukho egin dako bitarteko lege hari; khendu deie aphezpikuer eta aphezer zuzenez ukaiten zutena, deus gabe gelditzen baitira buru hortarik. Nork emanen deie aphezer bizitzekoa? Zuek, Aneia guziz Maitteak; huna laburzki zerk eratchikitzen dautzuen eginbide hori.

Zuzen baizik ez da.

Nahi duzue irauin dezan erlijioneak: hortako behar dituzue erlijioneko gauzak zuzen artean eginen dituzten aphezak. Bainan zuzenak nahi du nor bedera bizi dadin bere lanetik, eta noren onetan ere baitoa haren lana, hek eman dezakoten bere saria. Aphezak beren bizi guzian eta beren indar oroz egiten dituzte erlijioneari dauden gauzak arimen onetan: beraz erlijionetik zuzen da bizi dituen aphezak. « Ez dakizueia, zioen Jondoni Paulo Apostoluak, Elizan ari direnek lanean handik ere behar dutela bizi; aldarearen zerbitzuko direnek aldareko dohainetarik behar dutela berena. Hola ditu gauzak ezarri Jainkoak berak; nahi du Ebanjelioa irakasten dutenak Ebanjeliotik bizi dituen. Lurra lanthu duen laborariari dago bethidanik hartako mozkinen biltzea. »

Gizonen artean nor bederak saristatzen ohi ditu harentzat zerbeit lan egiten dutenak. Zer bada, apheza bakharririk othe lagoke, lana eginik, saririk ukhan gabe? « Nahi othe zindukete, dio oraino Jondoni Paulok, jan eta edan gabe bizi dituen aphezak, edo goseak hil ditzan Ebanjelioaz argitu dituztenen artean? » Medikuek, abokatek, prefetek, errientek ez othe dute ukhaiten egin lanaren saria? Zuzen baizikez da. Nola bada ez eman aphezer egiten duten lanaren saria?

Hau ere bada bertze alde. Elizak debekatzen dako aphezari edo zoin bidez diru irabaztera ar dadin: nahi du haren lan

guzia izan dadin arimen onetan egiten duen hura. Aphezak bere bizi guzia zor deie Jainkoari eta arimer: zeruaren eta lurraren artean emana da bere ancien onetan Jainkoaren eskatzeko, eta haren laguntza sailduaren jauts arazteko heien gainera. Othoitz egiten du aldarean; nun nahi othoitzean dago; ari da ikhasten liburutan, ezen egiaren begirale emana da: jakitaterik gorena eta beharrena hobeki beretu nahiz ari da, hartarik emaitako jakintsuner eta deus guti dakitener, haurrer eta zaharrer, orori hitz batez. Nola bada holako lana utzirik eman othe lezake bere dembora eta artha ogiaren edo ala zoin ontasunen biltzeaz bertze chederik ez luken lan bati? Haizu balitzako ere, othe luke hortako astirik, gau eta egun haren beharretan direnen laguntzera joaiteko heinean egon behar delarik? Aphezak eman deiezki bere ancier bere indarrak, dembora, bizia: zor dakote bada egunean eguneko ogia: ez dela deus zuzenagorik nehork ez dezake ukha.

Ikhustateak hala nahi du.

Orhoitzeko da ere aphezetasunera heldu ez direno hamalau edo hamabortz urthez, aphezek anhitz eman dutela berenetik. Hogoita lau edo bortz urthetan, chedera heldu direnean, deus gabe dira: hein adinekoek hartua dutelarik ordukotz beren biziaren irabazteko bidea: hek gauzarik beharrenaren ezin irabazian dira.

Badakizue ere aphezetarik gutiz gehienak atheratzen direla, ez aberatsetarik, bainan aphaagoen artetik. Ez dute beraz berek bizipiderik, bertzeen laguntzaren beharretan dira. Ez erran aphezer dirua emanez aphaltzen duzuela erlijioea; urririk behar dutela egin beren lana. Aphezak behinere galdatu othe dako ahalik gabeari dirurik bere lanaren saritzat; edo ez zuelakotz zer eman, utzi othe du nehor basterrerat behar zituenak eman gabe? Galdatzen othe dute zerbeit aphezek doatzinean, gau ala egun, erien ikhustera: haurrer kati-chima egin sari; kofesio aditzen daudenean orenak eta egu-

nak, edo emaiten dituz tenean salbatzeko behar diren Sakramenduak ?

Nun hatzeman ditezke saririk galdatu gabe bertzeentzat lanean ari diren gizonak ? Medikuak, zurginak, arotzak, errientak, soldado aitzindariak, orok nahi dute, eta zuzen baizik ez da, beren lanaren saria. Eta aphezak duelarik zuzena, edo lege baten edo ohiko ara baten ondorioz, eman dezakoten lanaren saria, galdatzen othe du hau bertze anhitzek bezala, mehatchurekin eta jujera deithuz ? Nahi duenak eman dezakola zor dakona, nahi ez duenak atchik. Hatzemadazu holarik bertze nunbeit. Beharrean direnek ez dezakotela eman, ez da deus zuzenagorik ; bainan aberatsek, eta behar den hura nasaiki dutenek ?

Ezen bizi behar du aphezak. Ez ahal lezake luzaz egin bere lana bizitzekoa eman nahi ez lakoketenen artean : nahi eta ez, behar luke handik joan nola bizi ukhan dezaken lekhurat. Apheza joan eta laster harek utzi lekhuan galdua liteke erlijionea eta arte laburrez paganotarar eroriak litezke hango giritinoak.

Zertako ez erran hauche ere. Orok ongi egile eta emaile daukate apheza. Zuen herrietan norat othe doa lehenik beharrean dena ; norat doatzi eskaleak, lanik ez dirurik gabeko langileak ? Minetan eta laguntza beharrean diren guziak erretoraren etchera doatzi. Daukate haren ganik zerbeit ukhamen dutela : ez baitako deusek sinheste horrek baino ohore gehiago egiten, ez eta ere erlijioneari ; ezen hunen gizonak orotan dohakabeen laguntzaleak deithuak dira.

Bainan nola aphezak emanen deie beharrer laguntza, ez badakozue eman nahi zuek zuzen dena, bereziki gobernamentuak zor zakonaz gabetu duenetik hunat ? Uzten baduzue bera beharrean, baditeke zuen amodioz ahal bezain luzaz jasanen duela izaitte hori deus erran gabe. Bainan aita bat da apheza, bereziki deus guti dutenen aita. Ez duzue nahiko joan dadin jende beharraren ikhustera eta athera dadin haren etchetik zerbeit laguntza utzi gabe. Khendu zindakokete bere aphaindurarik ederrena.

Bihotzak galdtazen du.

Eginbide hori betheko duzue, Aneia guziz Maiteak, ez dugu hortaz beldurrik batere. Aphezek ez dautzue aberastasuna galdatzen; ez dira hortako egin aphez. Galdatzen dautzue bizitzekoa, egon ahal dituen gatik zuen artean zuen arimen salbatzeko. Bai, emanen duzue, zeren eta herri guzian ez baituzue erretora baino adiskide hoberik. Nork ditu harek baino maiteago zuen haurrak, zuen eriak eta jende beharrak? Zerk dauzue min egiten hura hunki gabe? Nork bada harek baino hobeki laguntzen zituzte bere irakaspenaz lur huntako nahigabeen jasaiten? Maite dituzuenetarik batek hutsik utzi duenean zuen egoitzan bere lekhoa, nork daki aphezak bezala bihotzmina eztituko duen hitzaren erraiten? Nork du zuekin batean galdu duzuenarentzat othoitz egiten? Nork zituzte Jainkoarekin baketzen? Nork, zabalduko daukitzue zeruko atheak? Nork baizik aphezak?

Salbazale Jaunak erraiten zeien bere apostoluer: « Ez izan urhe eta zilharren jabe; igorri zituztedanean diru eta jateko untzirik gabe, deusen eskasik ukhan duzueia? » Hitz horiek erran nahi zuten Jainkoak bethi artha hartuko duela bere aphezez. Guk ere oren huntan, gintuenak galdurik, erraiten deiegu gure aphez maiteer: « Gauden beldurrik gabe; Jainkoak gutaz artha hartuko du. Bai Eskualdunak bai Biarnesak orhoituko dira zuek deiezueta egun nahasi hautan azkar eta oso begiratu zuer eta heier aitek utzi sinhestea. Nahiko dute Jesu Kristoren lekhukoa ohorezki bizi dadin heien artean. Hetarik jinen zauzue Salbazaleak apostoluer hitzeman laguntza.

Aithortuko dautzuegu, Aneia guziz Maiteak, baldin zuzenik gabeko lege batek khendu badeie aphezer zor zeiena, ez doala gaizki hori ondorio on zerbeit gabe. Gobernamentuak egia da, zor zeien bezala, emaiten zciela aphezer bizitzekoa. Bainan zer trabuetan ez zauzkan, laguntza horren ordainez? Erosiz ere on da libertate aphur bat.

Joan den mendean Angleterrako gobernamentuak eskaini zeien. Irlandako aphezker bizitzekoa. Bainan Irlandesek orok batean baztertu zuten eskaintza hori ziotelarik : « Emanen deiegu gure aphezker behar dutena : ez dugu nahi gobernamentuak ahotik atchiki ditzauzkun. » Eta ororen izenean. O Connel deputatu hain aipatuak adi arazi zeizkin Angleser hitz eder hauk : « Gure aphezker gureak dira eta bakharrik gureak! »

Hala da, Gure Aneia guziz maiteak, zuenak dira zuen aphezker; zuentzat dira eta zuen onetan : hortako dira, beren indar guzicz zuen ongiaren bilhatzeko. Neure beharrez aditu hitz bat erranen dautzuet hemen. Cibourun ginen joan den udan : jendea osteka bildurik ari zen zoinek hurbilagotik ikhus aphezkerikua eta har haren benedizioea : guri bide egiteko, aphezker batzuek ahalaz baztertzen zuten jendea. Emazte multzo bat naski idorkichko baztertu zuen norbeitek, ezen hetarik bata, samurra, bihurtu zitzaion aphezkeri ziolarik : « Gurea da aphezkerikua zuena bezain ongi! »

Ahapaldi ederra, giristino baten bihotzetik jauzia, barna sarthu baitzauku guhauri bihotzean.

Bai, Aneia guziz Maiteak, egiazki zuenak dira aphezker, aita bat bere haurrena den bezala. Bainan nun dira batere bihotzik duten haurrak beren aita debalde utz baitezakete beharrean? Zer artha ez dute hartzen hartaz, zer amodio ez dute harentzat? Liburu Sainduetan irakurtzen dugu, Jondoni Paulo deus gabea zelarik, orduko giristinoek hel arazi zazkotela behar zituenak. Eta bere ezagutzaren erakusteko Apostolu handiak izkiribatzen zeien : « Ukhan ditut zuek igorriak : ez dut deusen eskasik zuek esker. Ala laket baitzako Jainkoari zeren lagundu nuzuen! Bainan dohainak baino nahiago ditut hek eman dauzkidaten bihotzak! »

Ezagutza handia dautzuegu, Aneia guziz Maiteak emanen daukuzuenaz, bainan dohainak baino hobeki bihotza hunkiko daukuna hauche da : baitakikegu erlijionearen eta beraz Jainkoaren amodioz eman daukukezuegula.

Ez eta bai.

Izan ditezke nun edo nun gure galdeak gaitzetsiko dituztenak; gure erraner buruz estakuruak eraikiko dituztenak. Dezeiegun ihardets aitzinetik; hobeki baizik ez baitautzuegu agertuko zuen eginbidea. Erranen dute zombeitek :

Nahi dakot eman neure erretorari, bainan ez bertzeetakoer.

Ardurenik herri ttipietan aditzen ohi da solas hori; nihun ez baita makurrago, hausten duelarik bertze alde zuzena eta elgarren arteko amodioa.

Diosesa huntan berrehun eta berrogoita hamar herri baino gehiago badira (250) bortz ehun (500) arimetara heltzen ez direnak. Herri heier, jendearen arauera, galdatua izanen zeie hirur, lau, bortz, edo sei ehun liberako bat; ez gehiago. Badukete bizkitartean erretor bat; zeren eta bertze herrietan bildu soberakinetik hek emana alchatua izanen baita behar den heinera; bederatzi ehun liberatara (900).

Nahiago othe lukete eman herri hek diru hori guzia? Ahal luketeia ere? Ez dira beraz ongi mintzo diotenean gorago aiphatu solasa.

Ez othe dauku ere manatzen erlijioneak elgarren laguntzea? Diosesa familia handi bat da, haren aita baita Alphezpikua : haur guziek zuzen berak dituzte han. Ez zako beraz batari galdatu behar bertzeari baino gehiago. Ez liteke zuzen bertzala eginik. Nork nahi luke edo herri ttipiak erretorik gabe izan diton, edo hango erretorak ez dezan ukhan bizitzekorik, herri handietakoek luketelarik gauza gaindika?

Hola egiten ohi da jende bilkhu edo zozietate guzietan : ez liteke heientzat iraupenik baldin hetako jende bakhotchak ez balu eman nahi berari zerbeit irabazi ekharriko dakoten gauzen edo lanentzat baizik : orok behar dute ari ororen onetan.

Horrela Frantzian biltzen ohi da diru keta handia eritagi edo ospitaleetan jende beharraren arthatzeko. Zer erran zinde zakete aberatsak ez balu deusik eman nahi diolarik ez duela

harek eritegi beharrik? Zer zindioke ezkonduak ez direnez eta haurrik ez dutenez, baldin eskoletako biltzen den zerga ez balute eman nahi, haurrik dutener dagoelako estakuruan eskolez artha hartzea. Zombat bertze holako gauza, anhitzen-tzat batere behar ez litezkenak, ororen eskulik haziak baitira bizkitartean.

Suaz on egiten dutener emaiten deiezuenean dirua, galdatzen othe deiezue diru hura ez dadin emana izan zuen herri-tarren onetan baizik? Irrigarri zintezkete.

Orobat ihardets diteke diotener : *Aphezari zerbeit galdatzen dakotenek haz dezatela apheza : nik deus ez dakot galdatzen, ez dakot beraz deusik zor!*

Izan diren gizon nahasi eta sinhesterik gabekoenetarik batek, Proudhon baitzuen izena, izkiribatzen zituen hitz hauk dituela hiruretan hogoi bat urthe : « Izanen deno norbeit Frantzian sinheste dukenik erlijionean, nahi dut nehorik ez dezakon traburik egin erlijioneari. Ez dezaket beraz onhets khen dezeiteten aphezzer bizitzekoa.

Diote batzuek erlijioea nahi dutener dagoela aphezaren haztea : bainan nork ez du ikhusten estakuru beraz behar litezkela khendu bideetako eta bertze lan handi guzietako biltzen ohi diren zergak. Frantzia buru batetako laborariak zertan du bertze buruko bideen beharrik, edo leihor barnean dagoenak itsas hegiko lanen beharrik? »

Bertze alde ez da bat Diosesa huntan apheza behartzen ez duenik. Ez badakote ere berentzat deusik galdatzen, nun dira beren haurra uzten ez dutenak lehen komunionearen egitera? Nork luke gibelatu nahi apheza aita, ama, haur, aneia edo arreba eriari laguntza emaitetik? hil denean harentzat othoitz egitetik? Zombat ez da aphezaren ganik orai urrun daudenen beren artean heriotzeari buruz apheza hurbiltzera utziko dutenik, ez baduta ere berek galdatzen?

Orok, Aneia guziz maiteak, baduzue edo ukhanen duzue aphezaren beharra; orok beraz nahiko duzue zoinek bere aldetik eman harentzat galdatua zauzuea.

Badira diotenak : *Alphezek eginen duta berenaz!* Nola hori, baldin ez badeiezuete zerbeit emaiten? Hola mintzo othe

zeizkite medikuari, abokatari, langileari, beren lanaren saria galdez heldu zauzkitzuenean? Badakizue aphezera gobernamenduak ez deiela deusik emaiten : nundik bada duke zuen erretorak bizitzekoa? Jan behar du bizkitartean bizitzeko. Angleterran, Alemanian, Ameriketara handizki emaiten deiete giristinoek aphezera eta aphezpikuer, uste baitakote ohore egin Jainkoari haren lekhukoak ezarriz beharraren hel-menetik urrun. Ez dautzuegu hainbertze galdatzen. Aphezentzat nahi duguna da ukhan dezaten bizitzekoa. Berek ere ez lukete gehiagokorik nahi. Hetarik batek izkiribatzen zaukun duela zombeit egun : « Ene haurren onetan ekharria niz zer nahiren jasaitera : badakit haurretik beharraren berri : ur eta ogiz hazia izan niz; berriz ere hartuko ditut, behar bada, ohiko hatzak. »

Horra nola egin dezaketen aphezak berenaz.

Nasaiki eta goriki bizi direla aphezak diotenek ez bide dituzte ikhuri zombeit aphezen egoitzak. Iklus lezakete zoin chuchurki bizi diren, eskaleen egoitzaren iduriko baita heiena : ichilik daude bizkitartean, arimer josiak bezala azken hatseradino. Eta horra nortaz, berek ongi jan eta ongi edan ondoan, erranen deieten zombeitak aditu nahi dutener : « Beude aphezak, eginen dute berenaz. »

Nahi nuke bai galdatua zautana eman, bainan, ez dezaket, diote batzuek : anhitz emaitako badut; lehertua naukate zergek.

Ez badezakezu, ez eman deusik. Aphezak halere begi onez ikhusiko zitu, eta bere eskasian hatzemanen du zure laguntzeko zerbeit.

Edo hobeki erraiteko, emazu, nahiz ziren beharra, ez izanik ere bisoseko bat baizik urthean. Hartuko dugu den gutia gogo onez; erakutsiko baitaiku zuen fedea : aberatsaren urhea bezainbat baditeke gure begietan. Gutti duenak aberatsak bezala nahi dugu erran ahal dezan. Apheza enea da, ene eskuko da, nik eman ogia jaten du. Alde hortarik ez dugu beldurrik; gutti duena emaile izaiten ohi da.

Anhitz aldetarat emaita baduzula, diozu, zergek leherturik zauzkatela. Egia da urthetik urthera handituz doatzila zergak, gutituz deramatela ororen irabazia. Zombatak bizkitartean

gogotik har bailitzazkete zerga handi hek bizkarrera, eman bailezakete ere aphezarentzat galdatua zeiena! Zergak ez dira bethi bakhotchak duenaren izaria : zerga anhitz emaiteko duenak baduke halere zerbeit bererik. Nor da zerga handiz mintzo direnen artean bazterrerat eman ez dezakenik, makhurtu gabe, urthean hamar edo hogoi liberako bat? Har baladi cheheki anhitzek urthe buru batetarik bertzera behar gabe igortzen dutena, laster hel gintezke chun liberakoetara. Zertako bada egin zergak diren baino dorpheago, behar gabe chahutuz dirua?

Aberats direlakotz, eta zerga handiak galdatuak zeiezki-lakotz, zombeitek ez badakote aphezari eman nahi berea, bertze buruetarik igortzen dutelarik dirua, beharko othe da beren lanetik ongi nekatuz bizi direnek har dezaten beren gain aphezaren haztea? Bainan ez dugu holakorik ikhusiko. Orok, Aneia guziz Maiteak, nahiko duzue obra horri esku eman. Hola izanen dela jakiteko aitzinetik, aski dugu orhoitzea nola dakozuen ihardetsi Semenarioen onetan egin dautzuegun galdeari.

Dezagun orai erran nola eginik izanen den aphez bizitzeko eman behar deien obra hori « Denier du culte ».

NORA HELDU BEHAR DUGU ?

Diosesako aphez nausiak bildu gintuenean gauza hortaz elgarrekin mintzatzeko, hitz huntaratu ginen guziak : lekhuak lekhuko arak utzirik aitzinean ziren bezala, ariko ginela gobernamentuak khendu daukunaren ordainaren biltzera. Khendu baitazko aldiz Diosesa huni borts ehun eta berregoieta hamaborts mila libera (535 000 fr.) hoinbertze beharko dugula bildu. Anhitz herri ttipi bada Diosesa huntan; hek gaiztuko daukute gure lana. Badira hamaborts herri berrehun arimetara heltzen ez direnak : hiruretan hogoita bederatzi, hirur ehunez azpikoak : lauetan hogoiek ez dituzte lau ehun; lauetan hogoita zortzi ez doatzi borts ehunetara. Heltu baita badirela berrehun eta berregoieta hamabi (252) herri borts ehun (500) arimetara heltzen ez direnak. Hetan ez da bilduko behar dena; hango erretorer beharko deiegu eman bizkitartean bertzeer bezala bederatzi ehun libera (900 fr.). Bildu behar dugunaren erdia herri horietan joanen zauku. Herri horietarik zombait batetara ezarri beharko ditugu gerochago; bizkitartean nun ere aphez bat behar baita, han eginen dugu izan dadin, zer nahi gostarik ere. Familia bat baita Diosesa, hartako haur guziak bardin maithagarri baitzauzku eta behar baitute orok elgar lagundu.

Aurthen beretik galdatako dantzuegu aipatu diru hori guzia,

bortzehun eta berrogoita hamabortz mila libera 555 000 fr. Ez erran zombeit urthez izanen direla aphezak zerbeit ukhanen baitute gobernamentuaren eskutik. Ihardetsiko dautzuegu gobernamentuak nahi duelarik atchiki dezakela diru hori; badakigu, gauzek erakutsirik, zer dugun igurikitzeko haren ganik; zoin guti den gure alderat ekharria. Bertze alde anhitzer urthetik urthera gutiago emanen deie : læster gutiz gehienek deusik ez dukete. Alde bat hitzemanaz zeienek, zaharrentarik bailira, ez dute luzaz iraunen. Lege berritik hunat beren lanean sarthu aphezak ez dukete deusik Gobernamentuaren eskutik. Aphez zahar eta erien laguntzeko bazen diruketa bat bildurik. Hartaz jabetu da Gobernamentua. Hek beraz gure gain gelditzen zauzku. Behar diegu bizkitartean esku eman ahal den izari guzian.

Erretor berak baditu lekhotan bi eliza.

Orai artean bigarren eliza harek, edo haren izenean bertze norbeitek emaiten zakon zerbeit aphezari han egin lanaren sari. Zer egin orai? Galdata behar othe gindeien eliza hari daudener, eman zezaten behin bertze guziek bezala aphezarentzat, eta gero berek bertze alde beren elizako lanaren saria : ala lan hori behar gindakon eratchiki aphezari deusik eman gabe ordainez. Ez dugu uste ukhan zuzen zitekela gauza horietarik ez bata ez bertzea. Bigarren eliza horri daudenek ez dute emanen bertze guziek emaiten dutena baizik : bainan hartako lanarentzat emana izanen zaku aphezari ehun liberako bat, bertzeetan bildu diru soberakinetik. Bi eliza dituzten aphezak ukhanen dituzte bada urthean mila libera (1000 fr.). Igurikitzen dugu bigarren elizari daudenek erakutsiko dutela beren ezagutza, nasaikiago emanez galdataz zeienaz gainetik.

Azkenekotz badira Diosesa huntan ehun eta berrogoita hamar (150) bikari. Hetarik lauetan hogoita batek ukhaiten zituzten gobernamentuaren ganik lau ehun eta berrogoita hamar (450 fr.) libera urthean. Herriak edo fabrikak eratchikitzen zeiezkiten berrehun eta berrogoita hamar libera (250 fr.); baitzituzten orotara zazpi ehun libera 700 fr. Bertze hiruretan hogoita hamarrek diru keta bera ukhaiten zuten herrien edo fabriken eskutik. Hemendik goiti gobernamentuak, ez herriak,

ez fabrikak, ez dute deusik eginen heientzat : gure gainera daude beraz hek ere, guk beharko deiegu eman behar duten guzia. Heien saria ez da bizkitartean sartzen gobernamentuak emaiten zituelako borts ehun eta berrogoita hamaborts mila liberetan. Horra zertako aurtendantik galdatzen dautzuegun diru keta hori guzia.

Nola zathi?

Nun hartuko dugu bakhotchak eman behar duenaren izaria? Zuzenez nahi ginduke ari; ez baita errech neurriaren hatzemaitea. Izari hori har diteke asko burutarik : edo behatuz zer ukhaitza duen herriak : edo zombat arima dauzkan, edo nola zakon erlijioneari atchikia. Bainan ez da errech, gauza horiek bakharka hartuz, izari chuchenaren hatzemaitea. Behatuz aldiz elgarrekin, iduritu zauku chuchenago ginderamatzatela. Bi gauzer behatu deiegu bada izari horren hartzeko : zombat den herria aberats eta zombat jende daukan. Ezen herrier deiegu egiten gure galdea eta ez jendeari bakharka.

Zombat den herria aberats ezagun da *herriko centimatik* (centime communal) eta herriak urthean biltzen duen mozkinetik. Badakigu bide hortaz ez girela heltzen nahi bezain chuchen gure chedera. Bizkartean *centima* hori ez bada herri baten aberastasunaren izaria, halere hunen ezagutzeko biderik hoberenatarik dela aithor dute orok. Eratchikitzen bazako herriak urthean biltzen duen mozkina, bi gauza horiek batean erranen daukute bertze edo zerk baino chuchenago zoin den aberats herri bat.

Izari horren arauera, sei araldetan ezarri ditugu Diosesa huntako herriak.

Lehen araldean sartzen dira *centima* hori berrogoita hamar liberetara (50) heltzen ez den herriak : eta beraz nungo mozkinak botz mila liberaz (5000 fr.) aphaago baitaude. Badira holakotan hirur ehun lauetan hogoita hamasei (396) herri; baitauzkate ehun eta lauetan hogoita lau mila, bederazi ehun eta hemezortzi (184918) arima.

Bigarren araldean sartzen dira : *Lehenik centima* hori berrogoita hamarretarik ehun liberetara artean dagoen herriak. *Bigarrenik centima* berrogoita hamar liberetara heltzen ez delarik, urtheko mozkinak bortz mila libera gainditzen dituen herriak.

Badira holakotan hiruretan hogoita zazpi herri (67); hiruretan hogoita hamasei mila eta hogoita hamahirur arimarekin (76,033).

Hirurgarren araldeak dauzka *centima* hori ehun liberetarik hirur ehun liberetara doan herriak.

Badira holakotan hogoi herri edo eliza, berrogoita hemezortzi mila zortzi ehun eta berrogoita bortz arimarekin (58,845).

Laugarren araldean centima bera badoa hirur ehun liberetarik bortz ehunetara. Badauzka sei eliza, hamasei mila sei ehun eta hogoita hamahirur arimarekin (16632).

Bortzgarren araldean dira *centima* hori sei ehun liberetarik hamabi ehunetara doan herriak. Biga dira holako, zazpi elizarekin, eta hogoita bortz mila hirur ehun eta hogoita hemeretzi (25,339) arimarekin.

Seigarren araldean dira *centima* hori hirur mila liberetarik sei miletara doan herriak biga dira holakoak ere, sei elizarekin eta hiruretan hogoita bi mila sei ehun eta lauetan hogoita bat arimarekin.

Horiek hola, gure bortz ehun eta berrogoita hamabortz mila (555000) liberen biltzeko ahal bezain chuchen herri horietan, huna nola eginen dugun.

Lehen araldeko herrier galdatuko deiegu jende duten bezainbat hogoita bortz soseko 1 fr. 25;

Bigarrenekoer, jende bezainbat hogoita sei sos 1 fr. 30;

Hirurgarrenekoer hogoita zazpi sos, 1 fr. 35;

Laugarrenekoer hogoita zortzi sos, 1 fr. 40;

Bortzgarrenekoer hogoita bederatzi sos, 1 fr. 45;

Seigarrenekoer hogoita hamar sos, 1 fr. 50.

Gauzaren oraino chuchenago egiteko, bazterrerat emaiten ditugu protestantak du Juduak, Kasernetako soldadoak, eta eritegietan hazten diren jendeak. Jaun erretorek ezagut araziko

dute zombat den holakotarik heien herrietan, hambat gutiago baituke herriak emaiteko.

Azkenekotz gauzak izari horien arabera eginik, heldu bagina ohartzera herri bati sobera galdatua zakola, edo ez aski, guhaurek hartuko dugu makhurraren chuchentzeko artha.

Nola ariko den obra.

Jaun Aphezpikua duke Obra horrek buru eta bere gain hartzen ditu haren on-gaitzak. Nahiago ginduken lan hori utzi giristino bulkhu baten eskuetara. Bainan legeko gizonak eta zombeit katoliko omendunek erran daukute bide hortaz anhitz makhurrer buruz gindoazkela. Bakharrik diteke bada Aphezpikua galde hunen egiteko eta zuek emanen biltzeko. Erran gabe doa ukhanen ditugula lan hortako gure aldean gizon argituak eta zuzenak, gure urhats guzien berri dakiketenak ez baitukegu deus gorderik heientzat. Lagun heien artean badira aphezak, bertzerik ere bai, oro gizon zuzenak eta erlijioneari zinez atchikiak. Hek izanen dira ororentzat gauzak ongi doatzila berme, eta Aphezpikuarentzat laguntza bat handia.

Azkenik elgarretara bildu direnean, Frantziako Aphezpikuek ekharri dute lege hau : erran bezala bildu diru guzia joanen dela Diosesa bakhotchean untzi eta esku beretará. Handik hartua izanen da aphez bakhotchari eman behar zakona; bainan ez da hartarik deusik baztertuko, ez elizako behar direnentzat, ez aphez etchearentzat.

Aphezpiku berek nahi ukhan dute errana izan dadin katoliko guzier egimbide hertsu bat dela heientzat ahalaren arabera obra horri esku emaita : zor dutela zuzenez galdatua zeiena.

Jaun erretorek bilhatuko dute eta hautatuko herriari galdatua zakonaren biltzeko biderik hoberena; bainan hartuko dute bat eta hari jarraiko zazko, ongi emaiten badu. Ez dugu nahi itsura ar dadin nehor, hala abiatuz guhaurek arte laburrez hil gindezake iraunkor egin nahi dugun Obra. Jakiten duten bezain sarri zer zakon heien herriari galdatua, jaun

erretorek deithuko dituzte zombeit gizon zuhur, jendearen ahalak ongi ezagutzen dituztenak. Heiekin batean herriari galdatua cakona ezarriko dute familia guzien gainera, galdatuz bakhotchari bere ahalaren arabera. Orok jakin behar dutena da bakhotcha bere jabe dela galde horri buruz; eman dezakela edo ez, eta eman dezakela nahi duena.

Nahi dugu zerbeit galda dakiten katoliko guzier, zoin nahi lerrotako, edo erlijioneaz kampo, zoin nahi sinhestetako izan dituen. Jende beharrer ere eginen zeie galde hori: ez gabilta hein diruaren ondotik, bainan nahi dugu erakuts dezaten bihotzez gurekin direla.

Erlijioneari ez dagon gauzarik, *politikarik*, ez dadiela nehola ere sar Obra huni dauden urhatsetan. Oroz gaineko gauza da erlijioea. Edo zoin alderditara dauden bertze gauzetan, katoliko guziek hemen zuzen berak dituzte eta ber eginbideak. Gaitzi lakioko, eta zuzenez hori, katoliko bati baldin bazterrerat emana baliz, erlijioneari ez dagon zerbeiten gatik. Ez dugu nahi ere herri bati galdatua zakona eman dezaten zombeit familia bakharrek. Gure galdea orori dago; errotarak ez du izan behar nehoren eskuko. Nork ez du ikhusten familia horiek, ez delakotz apheza heien gogorako, khen ahal lezakoketela behin hitzemaña?

Bertze alde ez dadin gatik apheza nehoren eskuko izan, eta Obra hunc, egiazki den bezala, ukhan dezan Diosesa guziarena delako itchura, nahi dugu herri bakhotchak emana jin dadin gure eskuetara; ez zazko nehola ere eratchiki behar herriko erretorari. Beraz bakhotchak emanen du, ez bere erretorentzat, bainan Diosesako erretorentzat; nehork ez duke bere erretorari erraiteko zuzenik: zu guk emanetik bizi zira. Orotarik bildutik emanen du Aphezpikuak aphez bakhotchari berea.

Apheza etchez etche.

Hatzemanen du hor jaun erretorak zertako ibil etchez etche, ikhus bere eskuko dituen jende guziak, eta zertaz solas egin heiekin. Diote, ez baita zerik gabe, gure arthaldearen ganik urrun gaudela : gure gain dugun jendea ez dugula eza-gutzen, hunek ere ez gituela ezagutzen. Badazkitzagu aphezak Diosesa huntan berean, hola etchez etche ibili behar ukhan dutenak, anhitz lekhotan uste ez bezalako hatemanik jendea bozkarioz eta ahalgez baitzauden. Orotan begitharte ona ukhan dute, gutienik ustean hobea. Kampan agur ere egiten ez zakoten gizon batzuen begietan ikhusi dute nigarra heien etchean sarthu direnean. Aithortu behar ukhan dute ez zirela berak hobenik gabe, eta baldin ukhan balute ongiaren egiteko khar aphur bat gehiago, hetarik urrun zaudenak hurbilago zituzketela. Ez zakiten nolakoa zen apheza, horrek zauzkan haren ganik bazter. Ala bada hoben baitzuten aphezek berek beren etchean hetsirik bezala egonik ! Eskerrak, gintuenak deramauzkun legeari, jendeaz jabetzekotan ezartzen bagitu.

Bai, Aneia guziz Maiteak, orori jinen zauzue erretora etchera : bai eta zuer ere gobernamentuaren eskuko gizonak ; gureak ziezte zuek ere, eta guk ukhatuaren zituztegelako beldurrik ez ukhan. Minichtro batek erran du goraki legeak elizako ongien buru ezarri nahi zituen bilkhuetan sartzen ahal zinezteela : hambatez gehiago zauzue haizu aphezer esku emaita Obra huntan. Badakigu bertze alde, errechik sinhetsi ere baitugu, jadanik zuetarik anhitzek chede hortan egin dugun galdeari ihardetsi dakotela.

Jinen zauzue ere ikhustera erretora zuer, aberatsak, gure itsas-bazterrek eta Mendi ederrek choratzen eta beretzen zituztenak. Batean Diosesa huntan zaudezte, bertzean hartan ; bakhotchari emanen dako zue nasaiki, ez baliz ere zuen eza-gutzaren erakusteko baizik Jainkoari zeren hain on izan den zuentzat ; emanen du zue beren lanaz nekez irabazitik guti baizik eman ez dezaketenen orde.

Emaiten ez dutenek?

Izanen othe da Diosesa huntako giristinoen artean Obra horri eman nahi ez duketenik? Gure ustez ez! Gutiak ditezke zer nahi izanik. Bizkitartean gertha diteken gauza baita han edo hemen, Frantziako jaun Aphezpikuek, aipatu dugun bilkhuan, bilhatu dute zer egin holakotan. Erranik giristino guzientzat zor bat dela aphezaren bizitzen laguntzea, nahi ukhan dute bizkitartean nehoi ez dakion börtchurik egin gauza hortan. Halere uste ukhan dute laguntza hori eman nahiko ez zuten herriak edo familiak ez zitezkeela ezar emaiten dutenen lerroan. Ezen ikhususirik ondorio berak zirela emanik ala ez emanik; errechago baita ez emaita, emaiten hasietarik anhitzek giberat egin lezakete eta gertha liteke laster bizitzekoa aphezer ezin emaitokotan bailitezke anhitz herri.

Zer egin orduan eman nahiko ez dutener? Erranen dugu hori beherachago. Erran gabe doa ahalik ez ukhanez, edo onhets diteken bertze zerbeiten gatik, eta ez gutizia eskasez, emaiten ez dutenak, eman balute bezala ikhusiak izanen direla.

Beharrak eta dohakabeak gure lehen adiskideak dauzkagu. Heientzat eginen dugu bethi ahal guzia eta urririk. Ohore bat zauku hori. Orobat diteke baldin bada beharraz kampo bertze zerbeit Obra horri ezin emanean ezartzen duenik.

Erretorer diteke holatan zer egin ikhustea: ar ditela ttipike-riarik gabe. Nahi ditugu azkar eta oso begiratu geure zuzenak: ez dugu nahi bizkitartean nehorik ukhan dezan gutaz erraiteko, diru goseak girela, ez dela erosiz baizik, gutarik deusik.

Horier datchikola.

Jainkoaren izen Saindua deithurik, solas eginik gure Aneia Kathedraleko kalonje jaunekin eta Diosesako aphez nausiekin:

Huna zer manatu dugun eta manatzen.

LEHEN ARTIKULUA

Denier du Culte deithu Obra establitua da Bayonako Diosesa guzian.

BIGARREN ARTIKULUA

Haren chedea da aphezer bizitzekoaren emaita eta ez egoitzaren, ez eta ere elizako behar diren gauzen. Horiek ere fededunen gain doazke; bainan ez dira Obra huntan sartzen. Hortako eskeak eginak izanen dira : badukete ere hor arima onek nun eman.

HURURGARRREN ARTIKULUA

Orhoit arazten deiegu giristinoer eginbide hertsia bat dela hetarik bat bederarentzat, ahalaren arabera, Obra huni esku emaita.

LAUGARRREN ARTIKULUA

Guk izendatu gizon bilkhu batek urthe oroz ikhusiko du eta erranen zer behar den bildu. Bilkhu hari cheheki errana izanen zako zer bildu izan den Diosesako herrietan, eta zer eman izan zeien diosesako aphezer.

Bilkhu horren buru izanen da jaun aphezpikua eta hartan sarthuko dira Aphezpikuaren konseilu guzia, Bayonako, Paueko, Oloroneko, Mauleko eta Ortheseko erretor nausiak; Murde Detroyat banquier ohia, Henri de Lestapis juje ohia, Murde Chesnelong, Murde Etcheverry deputatu ohia, Murde Ducrest abokata.

BORTZGARRREN ARTIKULUA

Obra huntako herrietan bilduko den diru guzia ichuria izanen da Bayonan jaun Aphezpikuaren eskuetara. Aphez-

pikuaren galdera eta haren gain bilduko da herri guzietan diru hura. Herri bakhotchak zer eman beharko duen ekharria izanen da ahal bezain chuchen. Holakotan aditzen diren gizon batzuek eginen dute lan hori, argiak ongi harturik.

Jaun erretorek ikhusiko dute nola hobe duketen bildurik diru hori. Bizkitartean ez zeie haizu haren biltzea eskeak eginez elizan.

Arimen onetan nahi dugu hortakotzat behin bederen, ahal dutelarik, ager aldi bat egin dezaten etche guzietan. Deusek ez du Obra hori bide hobean ezarriko.

Nor bederak eman nahi duen hura bil dezake erretorak berak, edo bil araz borondate oneko giristino zombeiten eskuz, bakhotcharen gain eman ez hamar bat familia. Eginen dute ahalaz hortako hartuko duten arak iraun ahal dezan, eta ondoko urtheetan lan hori egin dadin bere baitharik bezala.

Dirua hartzean emaileari emana izanen zako paper batean zer eman duen. Paper horiek urratuak izanen dira liburuchka batzuetarik, nun bakhotchetik geldituko baita puchka bat : huntan ere izkiribatua diteke zer hartu den, nola bertze puchkan ezarria baitzen zer emanik izan den. Liburuchka horietarik bakhotchak baduzke holako elun paper.

Erretorek hatzemanen dituzte liburuchka horiek aphez nausien eskuetan. Artha handirekin begiratu beharko dira liburuchka horiek, lana egin eta.

Beren izena agertu nahi ez dutenek eman dezakete gogo duten hura, edo berek edo arartekoz.

Jaun erretorek beren herriko katholiko guzier galdatuko deiete zer ere ekharria baita eman behar dutela, utzi gabe bakhar bat bazterrerat. Ez dugu onhetsiko zombait familia bakharrek har dezaten beren gain herri batek eman behar duena. Familiarik ez duten schier galdatuko zeie eman dezaten zerbeit, zoin nahi guti izana gatik.

Herri bakhotchean biltzen den dirua joanen da lehenik jaun erretoraren eskuetara.

Galdatua zeien baino gehiago emaiten duten herrietako jaun erretorer ez zeie haizu, edo zoin estakuruz, soberakin hartarik deusen baztertzea, izanik ere obra on batentzat.

Holakorik egin lezakena hobendun liteke, eta baztertu luken hura behar luke bihurtu.

Galdatua zeiena orduz eman ez duketen herrier ez zeie eskas dena emana izanen galdatu guzia bildu denean baizik.

Jaun erretorer diteke ikhustea noiz galda diru hori; bada-kite noiz izanen zakon jendeari errechenik emaita. Nehola ere, edo zoin estakuruz, jaun erretorek ez dituzte aldatuko hartuak diren arak (tarifs en vigueur, usages existants).

SEIGARGEN ARTIKULUA

Jaun Aphezpikuek elgarretara bildu direnean, ikhusirik gertha ditekela katholiko zombeitek edo ere herri zombeitek ez luketela nahi eman aphezen bizitzekoarentzat, ekharri dituzte bi lege hauk :

Herriari buruz. — Aphezari bizitzekoaren emaitkotan galdatua zakona eman nahi ez duen herriari khendua izanen zako erretora : auzoko aphez batek emanen deiezki hango giristinoer erlijionearen laguntzak; zoin nahi handia izan dadin herri hura, bertze bati eratchikia izanen da, ez duke han dago-ken aphezik : baitezpada behar den hura baizik ez duke erlijionearen laguntzetarik.

Orobat diteke bigarren eliza den herrietan, baldin bigarren elizari daudenek ez badute eman nahi galdatua zeiena. Bigarren eliza hori, ez bada bertzetik hain urrun, ez da aphezik joanen harat deusetako.

Bakhotchari buruz. — Aiphu dugun chedeko galdatua zakona eman nahi ez duen familiako jendeari ez zazko emanak izanen Elizak emaiten ohi dituen ohoreak, giristinoek ez dutelarik heien ukhateko zuzenik. Familia harentzat, ala ezkontzetan ala ehorzteetan, ala bertzala, ez da eginik izanen baitezpada behar den hura baizik : erran nahi baita ez dela izanen ez musikarik, ez kanturik, eta izkilak ez duela emanen egun oroz mezakotzat egiten ohi den deia baizik : Ehorztetako gorphutza altchatuko du aphezak eliza athean. Bainan erretorak lagunduko du hila hobiradino.

Nun ere izanen baitira zozietateak jadanik ohore berezien

jabe direnak, hetakoer eginen zeie orai artean bezala, nehoi ez dakion gatik gaitzi zerbeit aldatuz aitzineko aretarik.

Galdatzen deiegu jaun erretorer ar diton orotan Ebanjelioak nahi duen arabera, eztiki; bethi alderdirik hoberenetik behatuz gauzer. Buru onetik hartuz gauzak hobeki guretuko dugu jendea, delakotz orotan erlijioneari atchikia, ezen ez idorki ariz.

Ez dute jaun erretorek gehiagokorik eginen aiphu dituguner buruz; egonen dira hemen erranak diren mugetan.

Orai artean bezala jende beharrak ukhanen ditu urririk elizako lan guziak.

Familia batek galdatua zitzakon laguntza ez eman nahi ukhana gatik, hartako haurrak, bertzeak bezala, ibiliko ahal dira Katichiman, eginen dute lehen Komunioea, nola hartako bertze jendeak hurbilduko ahal baitira Sakramenduetarat. Nehori ez zako sinhestera eman behar, Sakramenduak emaiten direla edo ez, aphezaren alderat nor bedera denaren arabera.

ZAZPIGARREN ARTIKULUA

Erlijioneari atchikiak zazkon giristinoer galdatzen deiegu beren herrien onetan utz dezaten ahal duten dirua aphezaren bizitzekoarentzat. Aberats ez diren herrientzat laguntza handia liteke hori, eta, jendea sobera behartu gabe, baluke herri harek behin bethikotz bere apheza. Chede hortan helduko daukuten dirua ezarriko dugu lekhu onean.

ZORTZIGARREN ARTIKULUA

Hemen manatuak diren gauza guzier jarraikiko zeiezki hertsiki jaun erretorak : ez dute hetarik deus aldatuko ahal gure baimenik gabe.

BEDERATZIGARREN ARTIKULUA

Letra hau hedatua izanen da ahal bezaimbat. On da katholikoak ongi argituak izan diton erlijioneari dauden gauzez,

jakin ditzaten beren eginbideak. Zuzen da ezagut dezaten orok Obra hau, hek behar dutenaz geroz hazi.

Bayonan emana Apherilaren zazpian 1907.


† FRANÇOIS-MARIE,


BAYONNAKO APHEZPIKUA

Jaun Aphezpicuaren manuz :

LASSERRE, *Kalonje, sekretario-jenerala.*







32053. — TOURS, IMPR. MAME
